



2018eko URTARRILAREN 23 KO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2018/01/22

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2017-12-19 bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Harituz Tolosaldeko bertsozale elkargunearen diru laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 3.-Udaleko materiala erabili ahal izateko araudiaren inguruan dagokiona erabakitzea.
- 4.-Tolosaldeko emakumezkoen traineru taldearen laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 5.-Ostatuaren inguruan alkateak eman duen ebazpena jakinarazi eta berronetsi .
- 6.-2018-2021 urteetako lankidetzaren hitzarmena Udala eta Tolosaldeko komunikazioa taldearen artekoa aztertu eta dagokiona erabaki .
- 7.-Alkatearen ebazpena : 2017/52 eta 2018/01 hainbat ordainketa , jakinarazi eta berronetsi .
- 8.-Galderak eta eskaerak .



1.-2017-12-19 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2017-12-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den . Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta.

2.-HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARGUNEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

HARITUZ Tolosaldeko bertsozaleen elkargunetik , diru laguntza eskaera jasotzen duen txostena aurkeztu da . Eta Baliarraingo udalari zuzentzen zaion laguntza eskaeraren zenbatekoa 500,00 euro dira .
Eskaeraren aurrean , ondorengo hausnarketak egin dira :

- 1.-Baliarraingo herria , herri txikia izanik , herrian bertan sortzen diren elkarte eta ekitaldietan parte hartzea aberatsagoa ikusten du eta beraiek sustatzea egokiagoa ikusten da .
- 2.-Baliarraingo udalarentzat 500 eurotako diru laguntza kopuru handia da , herrian egiten diren ekitaldiak finantziatzeko kasu askotan diru kopuru gutxiago ematen delako .
- 3.-Bideratzen den eskaera honek , Baliarraingo herritarrei eta Baliarraingo herriari zuzenean ez diola inolako onura zuzenik eskaintzen .

Guzti honengatik , aho batez ERABAKI DA :

1.-HARITUZ ELKARTEAK ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA EZ ONARTZEA .

3.-UDALEKO MATERIALA ERABILI AHAL IZATEKO ARAUDIAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Baliarraingo udalak , Harkaitz elkarteko ordezkariaren baimenarekin eta Gazteen elkarteko arduradunaren baimenarekin , elkar banatutako materialaren erabilera arautzeko araudia onartzea proposatu zen .
Araudiak , hitzez hitz honela dio :



BALIARRAINGO UDALAREKIN ELKARBANATUTAKO HAINBAT ELEMENTU ETA MATERIAL ERABILTZEKO ARAUDIA

Baliarraingo udalak , herriko jai batzordea eta gazteen elkartearekin alde batetik, eta Harkaitz elkartearekin bestetik , hainbat elementu eta materialak partekatuak ditu .

Elkarren artean partekatutako elementuak dira: TXEKORRA ERRETZEKOA, PARRILLA, TABLEROAK , ASTOAK ETA AULKIAK . Eta MUSIKA EKIPOA, PANTALLA ETA PROIEKTOREA .

Elementu edo material hauen erabilera eskaerak udalarengana zuzentzen direla eta berau arautzea egokia ikusten da , erabilera zuzena eta arduratsua egitearen alde, aipatutako elementu eta metareialean erabilera arautzea da helburu .

ARAUTEGIA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENA.-Elementu eta material hauetatik , batzuek herriari emanak , besteak elkarrekin erosiak izan direla esaten da .

BIGARRENA.-Elementu eta material hauek herrian izatearen arrazoi nagusia herrian bertan antolatzen diren ekitaldietan erabiltzeko dira . Elementu hauek herritik kanpo atera behar badira , baimen berezia beharko dute , ondoren esango den bezala .

HIRUGARRENA.-Elementu eta material hauen erabilera , herriko ekitaldietara mugatuko da , hau da udalak , Harkaitz elkarteak eta gazte eta jaien batzordeak antolatzen dituzten ekitaldietarako hain zuzen ere . Beste motatako erabilera eman behar bada , baimen berezia behar du, ondoren esango den bezala .

XEDAPEN BEREZIAK

LAUGARRENA .-TXEKORRA ERRETZEKOA ETA PARRILLA ERABILTZEKO BAIMENA .



Elementu hauek herrian erabili behar direnean , baina ez herriko ekitaldietarako ,norberak antolatzen diren ekitaldietarako , bere erabilera pertsonalerako , baimen berezia eskuratu behar dute .

BOSGARRENA .-Baimen bereziaren eskaerak ondorengo datuak jaso behar ditu : eskatzailearen izen abizena , N.A.N. helbidea , erabileraren arrazoia eta data .

SEIGARRENA : Baimen berezi honek , erabiltzen den materiala ondo itzultzen dela ikusteko , bermea uztea eskatuko du .Materiala itzultzen denean , ondo dagoela ikusten bada , utzitako bermea itzuliko da .

ZAZPIGARRENA.-Aipatutako elementu edo material hauek erabiltzeagatik , 500,00 eurotako bermea utzi beharko da , dirutan edo bankuko abala bidez.

ZORTZIGARRENA.-Erabilera tasa ere ezartzen da honelako kasuetarako, eta erabilera bakoitzeko honako tasa izango da , kasu bakoitzerako :

- .-Txekorra erretzeko materiala50,00€/eguneko
- .-Parrila.....25,00€/ eguneko

BEDERATZIGARRENA.-Elementu hauek ezingo dira inoiz herritik kanpora atera .

HAMARGARRENA .- **TABLEROAK, ASTOAK ETA AULKIAK, MUSIKA EKIPOA , PANTALLA ETA PROIEKTOREA** . Elementu hauek herrian erabili behar direnean , baina ez herriko ekitaldietarako, norberak antolatzen diren ekitaldietarako , bere erabilera pertsonalerako , baimen berezia eskuratu behar dute .

HAMAIKAGARRENA .-Baimen bereziaren eskaerak ondorengo datuak jaso behar ditu : eskatzailearen izen abizena , N.A.N. helbidea , erabileraren arrazoia eta data .

HAMABIGARRENA : Baimen berezi honek , erabiltzen den materiala ondo itzultzen dela ikusteko , bermea uztea eskatuko du .Materiala itzultzen denean , ondo dagoela ikusten bada , utzitako bermea itzuliko da .



HAMAHIRUGARRENA .-Aipatutako elementu edo material hauek erabiltzeagatik , 100,00 eurotako bermea utzi beharko da , dirutan edo bankuko abala bidez.

HAMALAU GARRENA.- Elementu hauek ezingo dira inoiz herritik kanpora atera .

Eta mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-ARAUDIA ONARTZEA ARKAITZ ELKARTE ETA GAZTEEN ELKARTEKO ARDURADUNEK ONARTUTAKO BAIMENAREKIN .
- 2.-ETA ARAUDIAREN BERRI HERRITARREI EMATEA .

4.-TOLOSALDEKO EMAKUMEZKOEN TRAINERU TALDEAREN LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

Tolosaldeko emakumezkoen traineru taldeak ,diru laguntza eskaera bideratu du , horretarako dagokion txostena aurkeztuaz .
Eskaeraren helburua eskualdean taldea sortzea da eta horretarako biztanleko 0,50 eurotako diru laguntza eskatzen da .

Eskaeraren aurrean , ondorengo hausnarketak egin dira :

- 1.-Baliarraingo herria , herri txikia izanik , herrian bertan sortzen diren elkarte eta ekitaldietan parte hartzea aberatsagoa ikusten du eta beraiek sustatzea egokiagoa ikusten da .
- 2.-Bideratzen den eskaera honek , Baliarraingo herritarrei eta Baliarraingo herriari zuzenean ez diola inolako onura zuzenik eskaintzen .

Guzti honengatik , aho batez ERABAKI DA :

- 1.-TOLOSALDEKO EMAKUMEEN TRAINERU TALDEAK ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA EZ ONARTZEA .

5.-OSTATUAREN INGURUAN ALKATEAK EMAN DUEN EBAZPENA JAKINARAZI ETA BERRONETSI .



Zartagi ostatuaren inguruan , dagoen egoera ikusita , alkateak hartutako erabakia udalkidei jakinarazi zaie eta , adostasuna agertu dute .

Jakinarazpena agzteleraz egin da , jaso behar duenak ulertu ahal izateko .

“PRIMERA NOTIFICACION POR INCUMPLIMIENTO DE LAS CLAUSULAS DEL CONTRATO DE LA EXPLOTACION DEL OSTATU DE BALIARRAIN.

En Baliarrain a 23 de septiembre de 2014 se firmó el contrato de la explotación del ostatu de Baliarrain por un periodo de cinco años, debiendo abonar 500 euros mensuales más el IVA de 21%.

El pago del canon se debería de realizar por semestres adelantados desde la fecha de inicio de la concesión, conforme al punto 11 de la clausula decimocuarta del contrato.

Esta Corporación se ha reunido varias veces al objeto de solicitar la regularización de los canones mensuales pendientes, habiendo concedido facilidades para su cumplimiento, resultando hasta la fecha ser infructuosas, por persistir la deuda.

Dicha deuda, va ascendiendo a sumas importantes, según el cuadro siguiente:

Deuda el 31 de diciembre de 2016:	
Canones.....	3.575,00 €
Subvención de la contratación.....	1.642,62 €
Canones correspondientes a 2017:.....	7.260,00 €
Total	12.477,62 €
Abonos realizados en metálico en 2017:..... 1.770,00 €	
20/03.....	350,00
18/04.....	300,00
28/04.....	400,00
16/05.....	220,00
11/07.....	500,00
Compensaciones de 2017.....	958,32 €
Postres del dia de la mujer.....	229,50 €
San Isidro.....	183,50 €



Luntx en diciembre..... 545,32 €
Total 2.728,32 €

TOTAL DE LA DEUDA HASTA 31/12/2017.....9.749,30 €
(12.477,62 € - 1.770,00 € - 958,32 €)

Considerando, que la deuda va ascendiendo y que dicha deuda se ha duplicado durante el año 2017.

Considerando que se tiene constancia de la existencia de otras deudas por concepto de suministros (gas, agua, etc.)

Ante esta situación, la corporación acuerda:

- 1.- Exigir que se adopten las medidas necesarias para hacer frente a la deuda.
- 2.- Exigir que se abonen las deudas y quedar al corriente de dichos pagos antes de 1 de marzo de 2018

En Baliarrain, a 16 de enero de 2018.

La Alcalde”

Mahaikideek ADOSTASUNA agertu dute .

**6.-2018-2021 URTEETAKO LANKIDETZA HITZARMENA UDALA
ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIOA TALDEAREN
ARTEKOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .**

Alkateak agertu du , Tolosaldeko komunikazio taldeak 2018-20121 urteetarako lankidetza hitzarmena proposatu duela , ondoren adierazten den bezala :

..... UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA s.m.

2018-2021. URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

.....n, bi mila eta hamazazpikoarenan



BILDURIK

Batetik,, NAN:,ko Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordeztuz diharduena, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, XABIER SAIZAR INGIDUA, NAN: 15.997.047-J, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ren (aurrerantzean TKT) lehendakaria, haren izenean eta ordeztuz diharduena.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

I.- Herritarren **hizkuntza-eskubideak bermatzeko** ahaleginean,.....-ko Udalak eta TKT-k bat egiten dutela **euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premi eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura**, herritarrek euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarearen sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- TKT-k dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus guneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediarren jabe eta ekoizpen arduraduna.

III.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean,

IV.- TKT-k eraturako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, **euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.**

V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzaren jardunaren sakontzea, aintzat harturik **Eusko Lege Biltzarraren "2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa"** -k Udalari ematen dizkion eskumenak eta TKT-k 2018-2021erako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.



VI.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak “Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak “Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan” (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

VI.- TKT-k, gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi helbururik eta, sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.
- b) Ataria Irratia 24 orduetan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet, urte osoan: ataria.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.
- d) **Eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlan bideak jorratuko dira sinergiak baliatu eta interes komuneko eta kalitatezko edukiak ekoizteko, edozein euskarritan.**

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren



aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.

- b) **Ataria hedabideek, beren beregi zainduko dituzte hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua egitenez, herritar guztien erreferentziazko komunikazio gunea izateko helburuarekin.**
- c) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; **urtez urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak eta neurketa adierazleak.**
- d) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. **Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau lau urtekoa (2018-2021) izango da. Urtean urteko errolda eguneratuaren arabera, **biztanleko 5 €** emango dizkio 2.018, 2.019, 2.020 eta 2.021 urteetan Udalak TKT-ri. Erabaki hau urtez-urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berriazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriak dokumentuak (hitzarmen honetako 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.**
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.
- e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jarria sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkari osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu



den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeko.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diru-ekarpen osoa zuritzeko fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Iaz bezala , biztanleko 5 euroko ekarpena egitea onartzea.
- 2.-Ekarpen hori urtekoa izatea, eta 2018-2021 hitzarmena ez sinatzea .
- 3.-Eta erabakiaren berri ematea .

7.-ALKATEAREN EBAZPENA : 2017/52 ETA 2018/01 HAINBAT ORDAINKETA , JAKINARAZI ETA BERRONETSI .

Alkateak ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera ematen da :

2017/52 . Hainbat ordainketa , guztira 1831,59€

2018/01. Hainbat ordainketa , guztira 761,87€

Mahaikideek ontzat eman dute .

8.-GALDERAK ETA ESKAERAK .

BAT.-LARRAITZ AGIRREAREN ESKAERA . Udal honetako gizarte langilea den Larraitz Agirrek , bere lansaioa % 8,05ekoa dela eta , dagokion funtzioak ondo betetzeko aukera ez duela eta , lansaioa % 15ea igotzea eskatu duela dio alkateak .

Lanaren balorazioa egiteko hainbat txosten ere aurkeztu ditu .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Baliarraingo udalerriaren kasuan , orain arte dauden beharrei erantzun zaiela eta herritarren aldetik ,zerbitzu gehiago ez dutela eskatzen .
Eta horregatik , orain arte bezala jarraitzea ERABAKI DA .

BI.-JUBILATUEKIN BILERA .- Anek agertu du herriko jubilatuekin bilera egiteko geratu dela urtarrilaren 29ean . Bilera honetan hilen behin edo bitan geratzeko aukerak aztertu eta erabakiak hartuko dituztela .
Aurrerantzean berriro ere zerbitzu honen berri ematen jarraituko duela .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak .

Alkateak

Idazkariak